



Eman hegoak euskarari



Arteari buruzko liburu bi

Margo bitan gordeak diren misterioak argitzen

JON KORTAZAR



L iteratura baino ez dudala irakurtzen uste duen adiskideak galdetu zidan aurreko baten zer ari nintzen irakurtzen. Eta arteari buruzko liburu bi irakurri berri nituela esan nionean, harridura aurpegia erakutsi eta: 'Nola horrela? Zer dela eta?' galdera pareta bidali zidan.

Argitu nion askotan ez bada, behin baino gehiagotan, ona dela esparrua aldatzea eta beti literaturaz ez aritzea, bestela nekadura eta asperdura nebarreba bikiak agiri direla eta irakurketaren kaltetan izan ohi dela.

Baina adiskideari argitu nion moduan, liburu bion gaia ez da zuzen zuzenean artea, baizik eta misterio baten argiketa, ikerketa bat aurrera eramatea, eta badute ikerketa poliziakoekin, nobela beltzekin, loturaren bat. Beti dut

gogoan Joaquín Gorrotxategi irakasle eta adiskideak Iruña-Veleiako ostraketan ageri zien irudiak eta idaztiak faltsuak zirela frogatzeak egindako lana. Benetan detektibe lana izan zen berea, eta puntuz-puntu seriotasun handiz aztertzen zuen detektibe bakoitza, xehetasunik txikiena eta frogatzen zuen bere iritzia. Ez dut ahaztekoa erabili zuen frogatze estatistiko bat. Ostraka haiek guztiak benetakoak izanez gero, Iruña-Veleiako alfabetizazio tasa, irakurtzeko eta idazteko ahalmena, inoiz Erromako Inperio osoan emandakorik altuena izango zatekeen. Gurererorri, badakigu gorpuan ageri badira ez dakit zeren tasa altuak, ziurrenik pozoia izan dela heriotzaren kausa.

Paestum-eko igerilaria

Aipatu nahi dudana lehen liburua

Tonio Hölscheren 'El nadador de Paestum' deitzen da. Denok dugu buruan Paestum hiriko hilobi batean agertu zen irudia: pinturan toki altu batetik gizon batek itsasora zeruaren eta uraren artean. Pintura helenikoaren irudirik ederrera askoren ustez eta aipamen ezinbestekoa denen usteetan.

Liburuaren tesia oso simplea da. Orain arte erabili izan diren irakurketa sinbolikoen aurrean, igerilaria bizitzaren eta heriotzaren artean omen dago. Tonio Hölscherrek irakurketa errealistikoa bat frogatu nahi du. Igerilaria bizitzaz gozatu nahi duen gaztea da. Ez dago sinbolik, bizitzako eszena da ageri dena, besterik ez.

Interesgarria, baina, ez da horrenbestez ondorioa, baizik on-

doriora heltzeko egindako bidaia. Uretara harri bat botatzen denean uhinak egiten ditu. Eta antzera lotu ditu datuak ikerlariak. Harria, kasu honetan, igerilaria da eta uhinak garaiko ohi-turak. Horrela Tonio Hölscherrek, Paestum hiriaren ingurumaria historikoa kontatu ostean, K. a. VI. eta V. mendeetan ziren arteari eta estetikari buruzko datuak ekarri ditu hizpidera.

Igerilaria dago liburuaren gunean, baina haren bidez, edo hura gidarizat harturik, irakurleak, eta hemen dira uhinak, ikusi ditu gai desberdinak. Etruskoen hilobien moldaketa, artearen zeinua, igeriketa ohiturak Grezia zaharrean, maitasun moduak... Gizarte baten irudia igerilariaren irudi oinarri harturik.

Van Eyck pintorearen misterioa

Antzekoa, baina ez guztiz berdina, da Jean Philippe Postel egileak 'El affaire Arnolfini. Investigación de un cuadro de Van Eyck' liburuan egin duen ikerketa, ikerketa baten aurrean gaude eta. Arnolfini senar-emazteak izenez ezagutzen dugun margoa du hizpide. Eta detaileen irakur-

keta sinbolikoa eginez, ondorio berezia aurkeztu du.

Egileak erakusten duenez, emaztea heriotza adierazten duen objektuez inguratutako ageri da, nabarmenena amatata dagoen kandela litzateke, beraz hilda dagoen norbait genuke begien aurrean. Bizitzaren ikurrak aldiz, senarraren gainean daude. Postelen ustez, margoak hilda dagoen emaztearen bisita agertuko luke. Eta senarrak bere purgatorioko pasa beharra arintzeko zina egiten dio eskua igoaz.

Azalpena ez da hor bukatzen, ordea. Gela beste emakume batek seina izan dezan prestatutako dago. Erditzeko prestatua dago gela. Postelek proposatzen duena bikoitza da. Margoan ageri zena Van Eyck bigarren emaztea haurra izatekotan omen dago, eta puntu horretan ageri zaio senarrari hil zitzaion lehen emaztea garbitokitik hainbat eta lasterren ateratzeko laguntza eske.

Bihurria? Hor nonbait! Baina asmakizuna bada ere, bide ederra osatu digu Jean Philippe Postelek bere konpainia noblean.

Naturaren kultura

JON MARTIN-ETXEBESTE

Maitasun gutun bat izadiari. Horixe da Juan Kruz Igerabideren azken saiakera. Maitasunaren eta heriotzaren ondoren, natura izango da ziurrenik poema gehien inspiratu dituen gaia; baina gutxitan heldu zaio halako fintasunez. Testuak naturaren freskotasunaz gozatzen badakien pertsona baten esperientzia eta hautsak jandako liburuetako jakintza harrigarriaren arteko orekan ida-tziak daude. Jubilatzen ari den belaunaldiaren mundu ikuskeraren eta sinbologiaren isla baliotsua dira, eta ekologiararen militante izan gabe ere naturarekin konektatuta mantendu den sektorearen testigantza.

Autoreak naturako hainbat elementu bat hartu ditu abiapuntu gisa: txoko bat (Saturraran, Ur-salto, Hiru Erregeren mahaia...), animalien bat (txantxangorria, ehunzangoa, katuak...), landa-

reak (haritza, sendabelarrak...). Elementu hoiek lotutako oroitzenak eta jakintzak harilkatu ditu, guztira 37 artikululu labur osa-tzeko. Egiten dituen erreferentzitan asko irakurritako pertsona baten hegoak suma-tzen dira, oso gora hegaldatzen. Greziar mitologia eta Euskal Herriko herri jakin-tza ageri dira; baina, batez ere, bere bizi-tzarekin zerikusia duten parajeak. Nire gusturako, heltzen den parajearen eta gaiaren antzinatasunarekin bat dator artikulua kalitatea. Zenbat eta gazteago idazlea, zenbat eta zaharrago oroitzena, are urregorriago. Zenbait artikululu maisulanak dira. Aforismoetan trebatutako esaldi kontutendek tartekatzen ditu, gutxiren luman topatu litekeen estilo umoretsu edo poetikoarekin. Patxadaz mintzo zaio irakurleari Igerabide; makila eskutan, kasik basoaren parte. Ordulariak marka-tzen duen denboraren atzetik ziztuan duan trekkingzaleak ikusiko ez duen mendizale jakin-tsua da. Gelditu zaitetz, irakurle, eta egin iezazozu eguraldiari buruzko edozein aipamen. Basoa sumatuko duzu, hizketan.



URA SALTOKA
JUAN KRUZ
IGERABIDE

Ed.: Alberdania.
234 orr. 19,50 euro.

Kaltetuak aitortu

ARANTXA
URRETABIZKAIA



G izartea zerbaitetan aldatzen saiatzen denak badaki aldaketa sakonak mantso doazela, bada-ki sistema edozer irensteko gauza dela. Ezin definitu argitasun osoz zer den zehazki sistema, baina iruditzen zait hitz horrek balio duela dagoen hori izenda-tzeko.

Horrela egin du salto feminismoak kobazuloetatik aldizkaririk azalekoen- tarrara, are telebistetako esparru arros- tarrara. Horrela heldu da eskoletako jazar- penen kontrako borroka telebistan azaltzen diren iragarkietara. Eta, halere, beti bezain beharrezkoa da gizon eta emakumeon arteko eskubide berdint- suna aldarrira-tzen duen feminismoa, beti bezain beharrezko bullyngaren kontrako ahalegina.

Bi borroka hauek sustraietara jo behar dute zerbait aldatuko bada. Arin-keriak itxura alda dezake, baina ez du

sekula ezer konponduko. Sustraiak, or- dea, zerumuga bezain urrunak dira, ez zara sekula nahi bezain sakon helduko.

Bitartean, lehen pausoa kaltetuareki-ko solidaritatea da, ez ukapena, kalte- tuak daudela onartzea. Ondoren, hauei laguntzea eta, azkenik, kalte- gileez ardu- ra-tzea. Egia borobila da askotan nor- bait kaltetua sentitzen denean, ez kalte- gileek ez ingurukoek ez dutela kalte- rik ikusten. Huskeria bat, mikromatxis- moa, haur kontua ia-ia huskeria. Ez da hainbesterako.

Iruditzen zait gehiago aurreratu du- gula emakumeon kasuan eskolan jazar- pena jasotzen duten haur eta gaz- tetxoek kasuan baino, ezkutuago dago- la eskoletako kontua, agian hurrek eta gaztetxoek ez dutela feminismoak em- akumeoi fabrikatu digun bozgorailua. Gainera, eta hau ez zaio hainbat irakas- leri gustatuko, irakasleriak ez du jazar- pena an-tzematuko gailua nahiko zo- rroztu.

Eta bai, hezkuntza da gakoa, eskola- koa eta etxekoa, sustraietara jo behar dugu, han dagoelako arriskuaren itu- rria, baina, horrekin batera, erne ibili behar dugu kaltetuak antzemateko, haiekiko solidaritatea adierazteko.

SALDUENAK

FIKZIOA

1 Oso latza izan da.

Xabier Mendiguren. Elkar.

2 Miñan.

Amets Arzallus/Ibrahima Balde. Susa.

3 Cayo Hueso.

Oihane Amantegi. Elkar. Elkar.

4 Eraikuntzarako materiala.

Eider Rodriguez. Susa.

EZ FIKZIOA

1 Deitora zaitzala tigrisek.

Emilienne Malfatto. Txalaparta.

2 Gamazada.

Xabier Irujo. Txalaparta.

3 Sapiens.

Yuval Noah. Elkar.

4 Euskal Herriko historia ilustratua.

Joseba Asiron. Txalaparta.